

ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEK 16.000 PEZETA GUTXIAGO ORDAINDUKO DITUZTE FAKTURAKO

# Argindarraren tarifa %2,5 merkeagoa izango da 1999an

Argindar tarifak jaitsi egingo dira datorren urtean Espainiako Estatuan. Etxeko tarifak %2,5 merkatuko dira, eta enpresa txikientzako jaitsiera %3koa izango da. Azken horiek 16.000 pezeta gutxiago ordainduko dute fakturako.

Agentziak / Madril

ARGINDAR tarifa berriak eta sektore elektrikoaren liberalizazioa sakontzeko neurriak onartu zituen atzo Madrilgo Gobernuak. Datorren urtean argindarra batezbeste %2,5 merkeagoa izango da, eta etxeko kontsumitzaileentzako tarifa ere neurri horretan merkatuko da.

Jaitsiera hori 1996. urtetik hona jarraian egindako hirugarrena izango da. Hiru urte hauek pilatutako beherakada %12koa izango da.

Josep Piquek azaldu duenez, tarifak merkatzen jarraituko du, 2007. urtera arte. Urte horretan kontsumitzaile guztiek, enpresek nahiz etxekoek, tarifarik onenak eskaintzen dizkien argindar hornitzailea aukeratu ahal izango dute. Atzo onartutako liberalizazio neurrietako bat argindar sarearen erabilpenari dagokio, %25 merkatuko baita. Horri tarifaren jaitsiera gehituta, argindarraren prezioaren beherakada %4,6raino iritsiko dela iragarri du Piquek.

Beste liberalizazio neurri bat argindar hornitzailea aukeratu ahal izango duten enpresa kopuruari dagokio: 1999an 8.400 izango dira, egungo kopuruaren bikoitza. Onuradun nagusiak enpresa txikiak izango dira: saltokiak, lantegiak, tabernak eta antzekoak. Enpresa hauetako bakoitzak, %3ko tarifa jaitsierari esker, 16.000 pezeta gutxiago ordainduko ditu fakturako.

Erdi mailako enpresei, berriz, %1,4 jaitsiko zaie tarifa, eta urte-



Argindarraren tarifak jaisten jarraituko dutela iragarri du Espainiako Gobernuak.

ANDER GILLENEA

an bakoitzak 200.000 pezeta aurretuko ditu.

Bestalde, Madrilgo Gobernuak konpainia elektrikoek 1,3 bilioi pezeta ematea onartu du, lehia librea igarotzeko kostuak ordaintzeko. Horrek kritikak eragin ditu, eta PSOEek Auzitegi Konstituzionalera eraman du.

Piquek ukatu egin ditu erabaki horrengatik jasotako kritika guztiak. Haren hitzetan, ordainketa hori «ez da opari bat izango» konpainia elektrikoentzat, baizik eta lehia librea egokitzeke egin beharreko kostuengatik onartutako «kalte-ordaina».

## Hegoaldean 8.660 milioi enpresa elektrikoentzat

Erredakzioa / Bilbo. -HEGO EUSKAL HERRIKO argindar kontsumitzaileek, enpresek eta etxekoek, 8.660 milioi pezeta ordainduko dizkiete konpainia elektrikoek datorren urtean euren fakturen bidez, lehiara igarotzeko kostuak finantzatzeko, PSEk emandako datuen arabera. Hegoaldeko faktura elektrikoak 192.500 milioi pezetakoa da. Faktura horretatik %4,5 (aipatutako 8.660 milioiak) Madrilgo Gobernuak sektoreko enpresei eman nahi dizkien 1,3 bilioi pezeta horiek ordaintzeko izango dira.

Isabel Oiarzabal PSEko senadore gipuzkoarrak adierazi duenez, «opari» hori datorren urtean ezeik hurrengo urteetan ere ordainduko dute Hegoaldeko kontsumitzaileek. Alderdi honek gogor salatu du PPren jokabidea, sektoreko konpainia handiak faboratzearren «herreraren eta enpresen kaltean» jokatu duelako. X

## Pasaiko badia biziberritzeko konbenioa atzo sinatu zuten Madrilgo Sudupek eta Piquek

4.700 milioi pezeta inbertituko dira eskualdea berriz industrializatzeko

Agentziak / Donostia

ESPAINIAKO Industria Ministerioak, Eusko Jaurlaritzako Industria sailak eta Gipuzkoako Diputazioak atzo sinatu zuten Madrilgo Pasaiko badia biziberritzeko plana garatzeko erakunde arteko konbenioa. Josep Pique industria ministroak eta Roman Sudupe Gipuzkoako diputatu nagusiak sinatu zuten konbenioa.

Hitzartutakoaren arabera, Pasaiko badia hartzen duen eskualdean 4.700 milioi pezeta inbertituko dira ministerioaren, Jaurlaritzaren eta Diputazioaren elkarlanean, 1998tik 2001 urtera arte doan tartean.

Konbenioaren helburu nagusi-

sia badiaren berrindustrializazioa da, inguruaren urbanizazioaren arautegia berrituz, portuaren baliabiadeak bultzatuz eta errepide azpiegitura hobetuz.

Neurri horiek hiru erakundeek mila enplegu zuzen sortzea espero dute eta eskualdeko langabezi tasa txikitzea. Eskualde horretan gaur egun langabezia tasa %13koa da. Konbenioak ekarri dezakeen berpiztearekin, ordea, tasa hori %9,60ra, Gipuzkoako batz bestekora jaitsiko dela espero da.

Madrilgo atzo sinatutako konbenioaren arabera, Espainiako Industria eta Energia ministerioak interes gabeko kreditoren bidez 2.000 milioi pezeta zuzenduko di-

tu Pasaiko badiara, hamalau urteko amortizazioarekin.

Gipuzkoako diputazioak, bere aldetik, 1.083 milioi pezetako laguntza emango du, fondo galduko dirulaguntza gisa.

Eusko Jaurlaritzako Industria sailaren laguntza 1.625 milioi pezetako izango da guztira, fondo galduko dirulaguntzen eta kreditu biguinen artean banatuta.

Pasaiko badia bultzatzeko hiru erakundeek emango dituzten laguntzak eskualdeko herrietan —Pasaiko, Lezo, Errenteria eta Oiarzabal— jartzen diren industria proiektu berrientzat izango dira, baita badia ertzean kokatzen diren Donostiako auzuneetan jartzen direnentzat ere. X

## Diruaz hitz egitean EAJ eta PP ongi konpontzen direla dio IUK

IUK atzo aurkeztu zuten Legebiltzarrean PFEZri buruzko lege proposamen bat

Erredakzioa / Bilbo

IU alderdiak atzo aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarrean etxebizitzaren tratamenduan PFEZ armonizatzea proposatzen duen lege proposamena. Proposamen horretan, etxebizitzaren gaineko tratamendu fiskala bakarrik hartzen da kontutan, eta horren arabera, etxebizitzaren kostuaren %15 desgrabatzea posible izango zen, IUK proposatutako 20 milioi pezetako goreneko balioarekin. Hipotekaren interes dagokionez, desgrabatzea %20koa litzateke. Horrez gain, Araban etxebizitzaren gaineko onura fiskalei buruz hartutako neurri berriak ezezean geldituko lirateke.

Etxebizitzaren gaineko zerga armonizatzeko proposamenarekin bat egin dute EA eta PSE-EEk, eta atzo Javier Madrazo pozik azaldu zen horrekin. Hala ere, gogoratu zuten iragan ekainean proposamen berdina egin zuela IUK. «eta hiruko gobernuak ez zuten jaramonik egin».

PFEZaren erreformak EAJ eta PP diruari buruz hitz egiterakoan ongi konpontzen direla ikusi dela zuten Madrazok. «Euskal eskuin politikoa dira», esan zuen Madrazok. PSE-EE ere kritikatu zuten IUKo buruak, «boterean mantentzeagatik» eta diputazioetan EAJk kanpoan utzi ez zezan, PFEZaren erreforma onartzeagatik. X

## Bilboko Portuak ez ditu tarifak igoko 1999an

J. Aiartza / Bilbo

BILBOKO Portuko tarifak 1999. urtean bere horretan uztea erabaki du Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak. Erabaki hori portuko zerbitzu guztiei dagokio: praktikajea, attoa, merkantziak, garabiak, gordailuak, hornikuntza eta beste lako zerbitzuak.

Salbuzen bakarra untzien amarratze zerbitzua izango da, 1998ko KPI baino 0,5 puntu gutxiago garestituko baita datorren urtean.

Erabaki honen helburua portuaren lehiakortasuna hobetu eta garraio gehiago erakartzea da. Bestalde, portuak aurtengo ekitaldian emaitza ekonomiko onak lortzea espero du, eta erabaki horrek ez dio kalte ekonomiko handirik ekarriko.

Portuko tarifak %2 igo zirela urte honen hasieran, eta iaizko igokera %3koa izan zen. X



### Asteasuko Udala

Asteasuko Elizmendiko igoeraren konponketa lanak eta aldamenen dagoen G.L.P. hornidura sarearen trazaduren aldatzeko obra zibilarren lanak esleitzeko, prozedura ireki bidez, presakako izapidaketaz, lehiaketaren berr ematea.

Asteasuko udal hilerriaren erreforma lanak esleitzeko lehiaketa publikoaren deialdia egiten da, kontratua arautuko duen Klausula Administrazio Partikularren Pleguaren laburpena argitaratzen delarik:

\* **Kontratuaren xedea:** idazpuruaren agertzen dena.

\* **Lizitazioaren aurrekontua:** 7.466.615,- pza, BEZ barne.

\* **Obraren exekuzio epea:** hilabete 1.

\* **Behin-behineko berma:** 150.000,- pza.

\* **Behin-betiko berma:** 300.000,- pza.

\* **Eskaintzak aurkezteko epea eta lekua:** Asteasuko Udal Erregistro

Orokorrean aurkeztu behar dira eskaintzak, astelehenean ostirala bitartean, goizeko 9etatik 13etara, iragarri hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita 13 egunetan.

Dokumentazioaren kopia lortu nahi dituzten eskaintzaileek Tolosako Txirrita Liburutegian, Arostegia kalea, 1ean lortu ahal izango dituzte, hantxe egongo bait dira aipatutako epe berdinan.

Asteasun, 1998ko abenduak 23.

ALKATEAK.